

# EGOERARI AURRE EGITEKO ETA TOLOSA SUSPERTZEKO NEURRIAK

*Medidas para hacer frente  
a la situación y reactivar Tolosa* 02<sup>or.</sup>

**NEURRIAK**  
*Medidas adoptadas*  
04<sup>or.</sup>

**AZKEN BERRIAK**  
*Actualidad tolosarra*  
12<sup>or.</sup>

**AGENDA**  
*¿Qué quieres hacer?*  
15<sup>or.</sup>





# LARRIALDI EGOERAN UDALAK HARTUTAKO NEURRIAK

**U**dalak osasun larrialdi eta alarma egoera ezarri aurretik Prebentzio Mahaia eratu zuen, eta egunez egun egoera berrietara egokitzeko neurriak hartu ditu, orotara 50 baino gehiago.

Besteak beste, herritarren ongizatea eta segurtasuna lehenetsi dira arreta berezia kolektibo ahulenetan jarriz; udal eraikin guztietako langileak berrantolatatu dira herritarrek modu telematikoan artatzeko; kale garbiketa zerbitzua eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta zerbitzua indartu dira, beste askoren artean; eta neurri ekonomikoak ere hartu dira gainerako erakundeekin koordinatuta, sektore eta kolektibo ahulena babestu eta laguntzeko.

El Ayuntamiento constituyó la Mesa de Prevención antes de que se decretara el estado de alarma sanitaria y desde entonces se han adoptado más de 50 medidas para responder, en todo momento, a las necesidades de la ciudadanía y es que la prioridad absoluta ha sido y será garantizar el bienestar y la protección social de las personas.

## Eskertze mezua herritarrei

**Inoiz irudikatuko ez genukeen amets gaiztoa izan da herrian, baina egoera larrienetan bat egiten du komunitateak. Tolosak beste behin elkartasunez erantzun dio egoerari. Aurre hartuz eta aurre eginez. Elkarlanetik. Konpromisotik. Arduraz jokatzuz.**

Tolosarrok modu eredugarrian erantzun duzue, unerik zailenetan ere bai. Oraindik bidea dugu egiteko, eta elkarrekin egingo dugu bide hori, orain arte bezala, guztion artean Tolosa suspertzeko. Gure izaerari, nortasunari eta kulturari eusteko. Tokikoari. Bereizten gaituenari. Inor atzean utzi gabe, gizarte babesa bermatuz.

Eskerrik asko lehen lerroan aritu zaretenoi, haur eta gaztetxoei izan duzuen jarrera eta itxaropen mugagabeagatik, Zaintza Sarea Tolosari eta larrialdi taldea osatu duzuenoi, laguntza eskaintzen aritu zareten tolosar guztioi zuen denbora besteen eskura jartzeagatik eta itxialdiari argia eta doinua jarri diozuen balkoietako artista guztieri ere. Zuei guztioi, eskerrik beroenak.

Eta ez ditugu ahaztuko, pasarte ilun honetan, bidean gelditu zaizkigun herritarrek. Haien senide eta gertukoenei, gure besarkadarik beroena.

**Nos ha tocado vivir una crisis sanitaria sin precedentes que ha hecho que la comunidad se una y se fortalezca. Tolosa ha hecho frente a la crisis de manera ejemplar, desde la solidaridad, la colaboración, el compromiso y la responsabilidad social.**

El futuro que se nos presenta es incierto, pero debemos seguir avanzando, mirando hacia delante, con el único propósito de reactivar Tolosa y proteger aquello que nos identifica como municipio, nuestra cultura. Y hacerlo sin dejar a nadie atrás, garantizando la protección social.

Queremos agradecer la labor de todas aquellas personas que han estado en primera línea, a los y las menores por su talento y actitud; a Zaintza Sarea Tolosa y a las personas que han conformado el grupo de emergencia, a todas y todos los tolosarras que han dedicado su tiempo a ayudar a otras personas; a quienes han amenizado las tardes de confinamiento desde los balcones... a todos y todas, gracias.

Y tampoco olvidaremos a quienes nos han dejado durante estos meses. Un fuerte abrazo a familiares y personas allegadas.

Olatz Peon | Alkatea | Alcaldesa



# Itxialdi garaian hartutako neurri nagusiak:

## MARTXOA

- 12 • Prebentzio Mahaia eratzea.
- 13 • Garbiketa-zerbitzua areagotzea.
- 15 • Oposizioaren parte-hartzea Prebentzio Mahaian.  
• Komunikazioa areagotzea.
- 17 • Hiribus-zerbitzua murriztea.  
• TAO-zerbitzua bertan behera uztea.
- 18 • Hondakin-bilketa zerbitzua mantentzea.  
• Etxean kirola egiteko aplikazioa kaleratzea.
- 19 • Gizarte-zerbitzuak, herritarren beharretara jartzea.  
• Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta-zerbitzua indartzea.  
• Zaintza-sarea egituratzea.
- 20 • Adineko pertsoneri deiak.
- 23 • Tolosatzen Eskola Irekia: ikastaroak online.
- 26 • Kiroldegiko kuotak izoztea.
- 27 • Gazteentzako online-eskaintza eta etxetik kulturaz gozatzeko aukera.
- 29 • COVID-19 atala sortzea webgunean.

## APIRILA


- 01 • Azoka Zure Etxera egitasmoa abiaraztea.
- 03 • Neurri ekonomikoen azterketa eta zergen-ordainketa atzeratzea.  
• Abegi gauez eta egunez zabaltea.
- 04 • Babeserako materialaren banaketa.
- 07 • WhatsApp zerbitzua abian jartzea, zuzeneko komunikaziorako.
- 15 • Hiri-ekonomia mahaia sortzea.
- 17 • Zaurgarritasun ekonomiko egoeran dauden maizterrei errentan laguntzak ematea.
- 18 • Elikagaien banaketa indartzea.
- 20 • Ezohiko Azoka martxan jartzea.
- 21 • Autonomoen datu-basea eguneratzeko galdetegia kaleratzea.
- 30 • Prebentzio Mahaia desegitea eta ohiko jardura berreskuratzea.

## MAIATZA

- 02 • Laguntza baliabideen gida kaleratzea

## Oinarrizko zerbitzuak, bermatuta

Udaltzaingoa, Udate Herritarren Arreta Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuak oinarrizko zerbitzu gisa ezarri ziren hasieratik, herritarren beharrei erantzuteko. Gainerako sail guztiak ere modu telematikoan aritu dira herritarrek artatzen kalitatezko zerbitzuak bermatze aldera.



Los servicios esenciales, Policía Municipal, Udate y Servicios Sociales han trabajado en todo momento para dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía.

## Gizarte-zerbitzuak, indartuta

Herritarren beharrei erantzutea izan da lehenetsun nagusia. Horretarako, behar bereziak dituzten pertsonengan edota zaurgarritasun egoeran daudenengan arreta berezia jarri da.


Besteak beste, bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako pertsonen beharrak ezagutzeko deiak egin dira udaletik; indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta-zerbitzua indartu da; kalean bizi diren pertsonak artatzeko Abegi egunez eta gauez ireki da; elikagai-banaketa areagotu da oinarrizko beharrak asebetetzeko; eta Zaintza Sarea Tolosa taldearen bitartez laguntza eskaini zaie herritarrei; adineko pertsoneri Adinkide programaren bitartez eta arrakala akademiko eta soziala gaitzetzeko ikasleen artean ekipo informatikoak banatuz.




## Hainbat zerbitzu, areagotuta

Kale-garbiketa zerbitzua areagotu da eta desinfektatze-lanak abiarazi; komunikazioa indartu da herritarrek momentu oro informatuta izateko; al-katearekin zuzenean harremanetan jartzeko WhatsApp zerbitzua ere jarri da martxan; eta aisialdi eskaintza eta online-formazio eskaintza zabaldu ere herritarren eskura jarri dira.

Servicios que se han intensificado durante el confinamiento: limpieza y desinfección viaria, comunicación y oferta online de formación y entretenimiento.



Se han reforzado los Servicios Sociales para garantizar el bienestar de las y los tolosarras, en especial de aquellas personas en situación de vulnerabilidad.



# AURRERA BEGIRA, ZER?

Un plan para apoyar a los sectores  
y colectivos más necesitados

e

goerak sortutako ziurgabetasunaren eta ezjakintasunaren aurrean, arduraz eta zuhurtziaz jokatzeko ezinbestekoa da. Horregatik, aurreikuspen bat egin du udalak aurtengo urteari eta datorrenari begira, etorkizunean sor litezkeen beharrei ere erantzuna emateko.

Herritarren ongizatea eta gizarte-babesa bermatzen jarraitzearekin batera, aurrera begira hiri-ekonomia suspertzeari eta herri-izaera mantentzeari emango zaie lehentasuna. Besteak beste, behar gehien duten sektore eta kolektiboetako babesa eta laguntza eskaintzeko plana eratu da, eta 1,3 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua bideratuko da horretara, betiere etorkizunean sor litezkeen beharrei erantzuteko konpromiso osoarekin.

Junto con garantizar el bienestar y la protección social de la ciudadanía, en adelante también será prioritario reactivar la economía local, proteger nuestra identidad y cultura y fortalecer la comunidad. Para ello, se ha desarrollado un plan al que se han destinado 1,3 millones de euros en apoyo a los sectores y colectivos más afectados, con el firme compromiso de seguir respondiendo a necesidades que puedan surgir en el futuro.

## Tolosa babestu eta sustatzeko #SuspertuTolosa plana, hiru helbururen baitan ardaztuta

Egoerari aurre egitea, birusaren hedapena saihesteko neurriak hartzea eta tolosarren segurtasuna eta ongizatea bermatzea izan dira, larrialdi egoeran, lehentasunak. Orain, aurrera begira, egoera berrira egokitu behar izan da udala.

2020ko aurrekontu proiektua egoera eta lehentasun berrietara egokitu behar izan du udalak. Hainbat baliabide krisiari aurre egitera bideratu dira, gastuak areagotu egin dira eta diru sarrerek aurtun nabarmen egingo dute behera.

Egoerari aurre hartu eta aurre egiteko #SuspertuTolosa plana garatu du udalak, gizarte babesa bermatu, hiri ekonomia suspertu eta kulturaren eskutik, herri izaera mantentzea lehenetsiz. Aurtengorako urterako aurrekusiak zeuden hainbat proiektu ere mantendu egingo dira, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri modura, baina litekeena da 2019-2023 Legealdi Planean jasotako proiektu guztiak ez gauzatzea, lehentasunak aldatu eta beharrak areagotu egin direlako.



Hacer frente a la situación, adoptar las medidas necesarias para frenar la expansión del virus y garantizar la seguridad y el bienestar de las y los tolosarras han sido hasta hoy, la principal prioridad. El presupuesto con el que contaba el Ayuntamiento se ha visto afectado, la inversión social ha aumentado y también los gastos para hacer frente al Covid-19. A pesar de ello, el Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo por mantener los proyectos previstos para este año, aunque será difícil poder cumplir con todas las acciones recogidas en el Plan para la Legislatura 2019-2023 debido a que las prioridades han cambiado y las necesidades han aumentado.

La prioridad en este momento es garantizar la protección social de la población, reactivar la economía urbana y proteger nuestra identidad, todo aquello que nos identifica como municipio. Y para ello se ha elaborado un plan que cuenta con 1,3 millones de euros de presupuesto.

PLANAREN  
LABURPENA:

1,3

milioi baino  
gehiago

+

32

neurri  
zehatz

+

3

HELBURU

- gizarte-babesa bermatu
- hiri-ekonomia suspertu
- herri-izaera mantendu

## Gizarte-babesa bermatzea



- Familiei zuzendutako eta gizarte-larrialdietarako laguntzak areagotu.
- Adinkide programa, barririk bizi diren adineko pertsonen laguntza eta babesa eman.
- Elikagai Bankuko janari banaketa osatu eta bermatu.
- Indarkeria sexista jasaten duten emakumeen aholkularitza eta laguntza zerbitzua areagotu.
- Abegiko zerbitzua egunez zein gauez eskaintzeko urratsak egin.



## Hiri-ekonomia babestea eta suspertzea



Udalak sektore guztiak babestu eta laguntzeko hainbat egitasmo abiarazi ditu, jarduera ekonomikoa sustatzea lehentasunezkoa delako enpleguari eusteko, honek herritarren ongizatearengan duen eragin zuzenagatik. Hartutako neurriak hiri-ekonomiaren mahaian parte hartzen duten sektore guztietako ordezkariekin elkarlanean eta beren beharrak kotuan izanda landu dira.

### LAGUNTZA-LERROAK:

- Alokairua eta maileguak ordaintzeko
- Tasen ordainketarako
- Hornidura eta mantentze gastuetarako
- Inbertsio gastuetarako




Ayudas y acciones concretas para proteger el comercio, la hostelería, el sector servicios, el primer sector y las pymes



## Tokiko kontsumo kontzientea sustatzeko ekintza zehatzak

- **Bonuak:** merkataritza, zerbitzuen sektorea eta ostalaritza.
- **'Suspertu Tolosa':** kontzientziario kanpaina, herritarren inplikazio eta konpromisoa bultzatzeko.
- **'Azoka zure etxera'** egitasmoa, ekoizleekin elkarlanean, elikagaiak etxez etxe banatzeko.
- **'Azoka Lagunak'** proiektu berria, larunbatetako azoka indartzeko eta garai berrietara egokitzeko.



## Herri-izaera mantentzea

- **Kale-dinamizazio** programa udako eta udazkenerako, tokiko kultur eta kirol taldeekin elkarlanean.
- **Komunitate-izaera** sendotzeko partaidetza prozesua: **'Orain inoiz baino gehiago, guztion artean Tolosatzen'**.
- **Tokiko turismoa** sustatzeko eta herritarrei Tolosako ondarea ezagutzera ematen jarraitzeko bisita gidatu berriak.



El proceso participativo Tolosatzen se desarrollará hasta finales de año con el objetivo de fortalecer la comunidad, trabajar por el bien común, promover la acción social y las políticas público-comunitarias; a fin de construir de manera conjunta la Tolosa que queremos en el futuro



# AZKEN BERRIAK

Actualidad

## BUKATUTA, BERAZUBI ESTADIOKO BULEGOETAKO EGOKITZE-LANAK

Udalak Tolosa Futbol Klubarekin sinatuta duen hitzarmenaren baitan egokitu dira Berazubi estadioko bulegoak, aurretik egindako hainbat lanen ildotik. Aurrerantzean, elkarteak eta elkarteko gazte-kirolariek erreferentziatzeko gune eta egoitza izateaz gain, haien jardunerako gune eta eremu egokiagoa izango dute.

Zehazki goiko pisuko bulegoak berritu dira; gaur egungo araudira egokituz irisgarriagoak izan daitezten. Elkartearen egoitza izango den gunea hutsik utzi da, etorkizunean Tolosa CF taldeak haren beharren arabera egokitu dezan.

## SAN FRANCISCO 41 EREMUA HOBETZEKO LANAK AMAITUTA

*Finalizadas las obras de mejora en el paseo San Francisco 41*

Dentro del plan de mejora y renovación de los espacios del municipio, se han llevado a cabo trabajos en San Francisco 41 para mejorar la accesibilidad de la zona y siguiendo dando pasos hacia la eficiencia energética. Concretamente se ha elevado la cota de la acera, mejorado los laterales y bordillos de los jardines y renovado el pavimento. Asimismo, se han instalado nuevos sumideros y renovado la red de recogida de aguas pluviales.

Tolosako zenbait eremu zaharberitzeko planaren baitan, San Frantzisko pasealekua 41 eremuko irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak egin dira. Bestek beste, espaloien kota igo da, lorategien alboak txukundu eta zorua guztiz berritu irisgarritasuna hobetze aldera. Halaber, estolda-zuloak eta euri-urak biltzeko sarea ere berritu dira.

Energia eraginkortasunaren alde egiteko, LED argiak ezarriko dira kale-argiztapenean.



## ASFALTATZE LANAK HERRIAN



**Hainbat gunetan asfaltatze lanak egin dira: bidegorrietan, Larramendi auzoan, Ferialekuko aparkalekuan, Montesukuko bidean eta Amarotzen.**



## SANEAMENDU-SAREA HOBETZEKO LANAK GERNIKAKO ARBOLAN ET SAN FRANTZISKON

Ur kontsoltzioak Gernikako Arbolan, San Joan kalea eta Batxiller Zaldibia artean, eta San Frantzisko pasealekuko gune zehatz batean ur saneamendu sarea berritzeko lanei ekin die ur-zikinak eta euri-urak bereizteko. Aurreikuspenen arabera 12 asteko iraupena izango dute lanek, betiere eguraldiak laguntzen badu.

### Gernikako Arbolaren bigarren fasea

Lan horiek bukatu eta gero, udalak Gernikako Arbolaren berrurbanizazioaren

bigarren faseari helduko dio bertako irisgarritasun-arazoei konponbidea emateko, mugikortasuna hobetzeko, eta genero-ikuspegitik ere segurtasuna areagotzeko. Oinezkoari lehentasuna emango zaio eta herritarrek paseatzeko gune gehiago izango dituzte, baita irisgarriagoak ere: espaloiak zabaldu egingo dira, eta maila berean jarriko dira espaloia eta bidea. Zirkulazioak noranzko bakarra izango du eta hamalau aparkaleku mantenduko dira.

*Iniciadas las obras para mejorar la red de saneamiento en Gernikako Arbola y el paseo de San Francisco*

El Consorcio de Aguas renovará la red de saneamiento en Gernikako Arbola, concretamente entre la calle San Joan y Batxiller Zaldibia, y el paseo de San Francisco, para separar las aguas residuales de las pluviales. Las obras se han iniciado el 1 de junio, y se prevé que tengan una duración de 12 semanas, siempre y cuando las condiciones meteorológicas lo permitan.

## EHUN URTEAN LEHEN ALDIZ, EUSKARA GEHIAGO ENTZUN DA TOLOSAKO KALEETAN GAZTELANIA BAINO

Hizkuntzen Erabileraren 2019ko kalenurketaren emaitzak aurkeztu dituzte Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosako Udalak. 1985. urtetik, urtero egiten da hizkuntzen erabileraren kale-neurketa Tolosan. 2019koan, 3.246 elkarrizketa egin dira eta 8.647 hiztunen informazioa bildu da.

### Ondorio nagusiak

Euskararen kale-erabilera berrindartu egin da Tolosan azken 34 urtetan. 1985ean, % 29koa zen eta 2019an, berriz, % 49,1koa. Azken emaitza hau, gainera, neurketak egiten direnetik jasotako altuena da eta lehen aldiz, euskara gehiago entzun da kalean. Azken urteetako berrindartze honen atzean modu

desberdinetara beren aletxoak jarri duten herritarren lana dago.

### Aurrera begira

Tolosako Udalak euskararen nortasuna indartzen eta horri balioa ematen jarraituko du, eta euskararen erabilera kalean zein etxean sustatzeko urratsak egiten ere bai, Tolosa euskararen arnasgune izan dadin.

laz onartutako Euskararen dekretu berriak udalaren funtzionamendua euskaraz ahalbidez haratago, udalean euskararen erabilera lehenetsi eta herritarren eskubide linguistikoak babestu ditu, lan-esparruan zein herritarrekin harremantzeko garaian euskararen erabilera bultzatzeko.





### COVID-19AK ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEKO ERAGILE EKONOMIKOEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK, MARTXAN

*En marcha, las ayudas dirigidas a autónomos y microempresas para paliar los efectos del Covid-19*

Jarduera ekonomikoa babesteko eta sustatzeko helburuarekin 725.000 euroko aurrekontua bideratuko du udalak, beren kontura lan egiten duten langile, sektore guztietako autonomo eta enpresa txikiei laguntzeko. Dirulaguntza-zenbaterako proportzionalki banatuko da eskaeren artean. Horiek telematikoki aurkeztu beharko dira Tolosako Udaleko erregistro elektronikoen bidez, uztailearen 31 bitarte.

Dirulaguntza ondorengo gastuetarako eskatu ahal izango da: hondakinak biltzeko gastuak, alokairu eta mailegu gastuak, mantentze- eta hornidura-gastuak, zerga- eta aholkularitza-gastuak, aseguru primei dagozkienak eta elkarte edo federazio sektorialaren kuotari eta urteko zabor-tasari dagozkienak.

Eskatzailea izateko, besteak beste, ezinbestekoa izango da egoitza soziala Tolosan izatea, eta egoeragatik kaltetuta izatea establezimendua itxi egin behar izan delako, edota itxi ez bada, Covid-19ak eraginda % 50ean murriztu delako fakturazioa.

#### Eskaerak, non eta nola

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira Tolosako Udaleko erregistro elektronikoen bidez, uztaileak 31 bitartean. Horretarako, BAK@ ziurtagiria izan beharko da, aurrez 943 65 44 66 telefono zenbakian hitzordua eskatuta eskuratu ahal izango dena.

Informazio gehiagorako, **merkataritza@tolosa.eus** helbidera idatzi daiteke, edo **943 65 44 66** telefonora deitu.



### ETORKIZUNEN TOLOSA ERAIKITZEKO TOLOSATZEN PROZESUA, ABIAN

"Orain inoiz baino gehiago, guztion artean Tolosatzen" lelopean, partaidetza-prozesua abiarazi da, paradigma berri honetan, komunitatea indartu eta etorkizuneko Tolosa irudikatuko duten lan-lerroak eta ekintza txikien dekalogoak garatzeko.

Osasun krisi honetatik indartuta atera behar dugu komunitate gisa, pertsonak ardatz hartuta eta elkar-zaintza, justizia soziala, elkartasuna eta ingurumena erdigunean kokatuta. Prozesu hau ere #SusperTolosa kanpainaren baitan kokatzen da, herritar norbanako bakoitzak bere aletxoak jar dezan Tolosa suspertzeko. Herritarrak ez ezik, prozesuan, lehen aldiz, udal alderdi guztiak ari dira parte hartzen, baita udal teknikariak ere, helburu hartuta gizarte ekintza, elkarlana eta partaidetza sustatzea.

### ABIAN DA OSTALARITZA SUSTATZEKO SUSPERTU TOLOSA BONUEN BIGARREN FASEA

*Arranca la segunda fase de bonos SusperTolosa para reactivar la hostelería local*

Merkataritzarako 6.634 bonu saldu eta 226.605 euroko inpaktu ekonomikoa sortu eta gero, SusperTolosa kanpainaren bigarren faseari ekin dio Tolosako Udalak, oraingoan, ostalaritza sektoreari bultzada emateko. Bonuak uztailearen 18tik aurrera eskuratu ahal izango dira kanpainan izena eman duten jatetxe, taberna eta kafetegietan.

Los bonos se pondrán a la venta a partir del 18 de julio en los establecimientos inscritos en la campaña. Costarán 3€ euros pero el o la cliente dispondrá de 4€ euros para gastar.



# AGENDA

Tolosako giroa berpizteko garaia da!

#### UZTAILA

**10** XABI ZEBERIO eta AMAIA ELIZARAN: Out 20:00, Zerkausian

**18** ZIPIT COMPANY: Jai el Marinero 19:00, Euskal Herria plazan

**18** DON INORREZ 22:30, Plaza Berrian

**23** INTUJAI: Txangozatu 18:00, Zumardi Handian

**24** TOLOSAKO MUSIKA BANDA 20:00, Euskal Herria plazan

**25,26,27** ZINEA PLAZAN 22:00, Zezen Plazan

**30** MIRU: Badakizu eserita ere dantzatu daitekeela? 19:00, Zerkausian

**30** TXASTON DIXIEBAND 20:00, Plaza Berrian

#### ABUZTUA

**04** LUCÍA GÓMEZ eta ALIZE MENDIZABAL 20:00, Santa Maria elizan

**07** KEA Ahots Taldea 20:00, San Frantzisko elizan

**28** DANTZPOINT: Chill out berezia DJ-ekin 18:00, Zumardi Txikian

#### IRAILA

**11** EVAREN ALABAK: Cromlech 19:00, Aranburu jauregian



Agenda osoa ikusgai: [agenda.tolosa.eus](http://agenda.tolosa.eus)

\*Beharrezkoak diren prebentzio eta segurtasun neurri guztiak hartuta.



#susperTolosa



# LAGUNTZARIK BEHAR BADUZU, LAGUNDUKO DIZUGU

SI NECESITAS AYUDA, TE AYUDAREMOS

## TOLOSako udala

\_Servicio de atención a la ciudadanía:  
**010 / 943 65 44 66**  
[udate@tolosa.eus](mailto:udate@tolosa.eus)

\_Servicios Sociales de Tolosa:  
**010 / 943 65 44 66**  
[gizartezerbitzuak@tolosa.eus](mailto:gizartezerbitzuak@tolosa.eus)

\_Policía Municipal:  
**092 / 943 67 58 58**

### HITZ EGITEKO BEHARRA BADUZU

\_ADINKIDE:

**676 197 354**

[tolosa@adinkide.org](mailto:tolosa@adinkide.org)

\_TELÉFONO DE LA ESPERANZA DE GIPUZKOA:

**900 84 05 45**

\_HILO DE PLATA (Nagusilan):

**900 71 37 71 / 688 74 14 51**

[hilodeplata@nagusilan.org](mailto:hilodeplata@nagusilan.org)

### LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA BEHAR BADUZU

\_COLEGIO OFICIAL DE LA  
PSICOLOGÍA DE GIPUZKOA:

**692 56 61 60**

\_ADI:

**688 76 82 18**

[dispositivoadi2020@gmail.com](mailto:dispositivoadi2020@gmail.com)

### LAGUNTZA PSIKOSOZIALA BEHAR BADUZU

\_DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA:

**900 43 43 43**

### DOLUAN LAGUNTZA BEHAR BADUZU

\_ZUREKIN (BIDEGIN):

**664 12 52 93**

[zurekin@bideinduelo.org](mailto:zurekin@bideinduelo.org)

### MENDEKOTASUN EGOERAN DAGOEN SENITARTEKO BAT ZAINTZEN BADUZU

\_JAKITEN:

**900 100 356**

\_BURU-BIHOTZEZ:

**688 760 927**

### INDARKERIA MATXISTA PAIRATZEN BADUZU

\_EMAKUNDE:

**900 84 01 11**

\_AYUNTAMIENTO DE TOLOSA:

**010**

### OINARRIZKO ELIKAGAIK ASE EZIN BADITUZU

\_ZUTANI:

**943 67 06 66**

### ETXEAN ZAINTZA BEHAR BADUZU

(ZERBITZU PRIBATUAK)

\_CASER:

**686 98 50 99**

\_ILARKI:

**943 65 40 44**

\_TOLOSALDEA GARATZEN (Etxekolan)

**943 65 45 01**

